



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

GRAMATIKA BATZORDEAREN ETA EUSKARA BATUAREN ESKULIBURUKO
BATZORDEAREN IRIZPENA, **ELKANOREN EGUNA** ETA GISAKO IZENDAPENEI BURUZ

Getariako *Artzape* aldizkarikoek galdera egin dute ea zein den formulazio egokia bi izendapen hauen artean: **Elkanoren Eguna** ala **Elkano Eguna**.

Gramatika batzordeak eta Euskara Batuaren Eskuliburuko batzordeak, elkarrekin adostuta, honako iritzi hau eman nahi dute:

1. **Elkanoren Eguna** da izendapenaren aukera zuzen eta egokia. Eta, bestetik, aposizio eran moldaturiko **Elkano Eguna** izendapena ez da egokia, ez dago-eta Elkano izena duen egunik.
2. Aposizioek, sakoneko egituran, honelako moldea dute: *Aizkorri* [izeneko] *mendia* > **Aizkorri mendia**, *Urumea* [izeneko] *ibaia* > **Urumea ibaia**, *San Martin* [izeneko] *auzoa* > **San Martin auzoa**, *Mariñelak* [izeneko] *elkartea* > **Mariñelak elkartea**... Baina ez dago *Elkano* [izeneko] egunik. Elkano ez da egun baten izena; Aizkorri bai, ordea, mendi batena.
3. Badira aposizio eran eraturiko *San Ignazio* [izeneko] *eguna* > **San Ignazio eguna**, *San Joan* [izeneko] *eguna* > **San Joan eguna**, *Corpus* [izeneko] *eguna* > **Corpus eguna** eta gisakoak. Baina horiek *salbuespentzat* hartu behar dira, izan ere, hala dira Eliza katolikoak erabaki zuelako urteko egun bakoitza santu jakin bati eskaintzea eta, azkenean, egun horren izen bilakatu dira horiek mundu katolikoan. Baina adjektibo batekin doazenean, determinatzaile-sintagma dagokie (alegia, *-ko/-en* atzizkiak hartzen dituzte): *San Joan Bataiatzailearen eguna* (**San Joan Bataiatzailea eguna*), *San Antonio Paduakoaren eguna* (**San Antonio Padua eguna*).
4. **Elkanoren Eguna** da aukera egokia, arestian esan bezala. Hots, joskera normalean eman beharreko egitura behar du; determinatzaile-sintagma gisara, alegia. Halaxe moldatzekoak dira beste hauek ere: *Xalbadorren Eguna*, *Gabriel Arestiren Eguna*, *Nafarroaren Eguna*... Eta ospakizun baten izendapena aditzera ematen denez, letra larriz hasita idazten dira hitz guztiak.
5. Esanak esan, nolana ere, argi gera bedi **Elkano Fundazioa** izena egoki eraturik dagoela aposizioan, fundazio jakin baten deitura adierazten duelako (< *Elkano* [izeneko] *Fundazioa*). Gisa horretakoak dira erakunde, enpresa eta orotariko taldeen izenak: *Hezkuntza Fakultatea*, *Elgoibarko Euskara Mintegia* edo *Donostiako Udala* bezalaxe.

Euskaltzaindiko Gramatika batzordea
Euskaltzaindiko Euskara Batuaren Eskuliburuko batzordea